Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

2776

99/2011 DEKRETUA, maiatzaren 17koa, Vitoria-Gasteizko (Araba) Santa Maria kaleko 5eko higiezina desafektatzea erabakitzen duena. Higiezin hori abenduaren 23ko 312/1997 Dekretuaren eraginpean dago, hau da, Vitoria-Gasteizko Hirigune Historikoa Kultura Ondasun gisa Monumentu Multzo izendapenaz kalifikatzeko eta hura zaintzeko babes arauak ezartzeko den Dekretuaren eraginpean.

Vitoria-Gasteizko Santa Maria kaleko 5eko higiezina abenduaren 23ko 312/1997 Dekretuan oinarrizko babesarekin sartuta dago, alegia, Vitoria-Gasteizko Hirigune Historikoa Kultura Ondasun gisa Monumentu Multzo izendapenaz kalifikatzeko eta hura zaintzeko babes arauak ezartzeko den Dekretuan (1998ko urtarrilaren 15eko EHAA, 9. zk.).

Uztailaren 3ko 7/1990 Euskal Kultura Ondarearen Legeak (abuztuaren 6ko EHAA, 157. zk.) bere 36. artikuluan dio galarazita dagoela sailkatutako edo inbentariatutako kultura-ondasunak eraistea, aurrez aurri-deklarazioa eta tokian tokiko foru aldundiaren baimen berariazkoa eskuratu gabe, eta beharrezkoa dela, gainera, desafektazioaren gaineko Eusko Jaurlaritzaren aldez aurretiko baimena.

Lege hori garatzeko, azaroaren 10eko 306/1998 Dekretua eman zen: «Kalifikatutako eta zerrendatutako kultura ondasunen aurri-egoeraren deklarazioari buruzko eta berauek eraisteko erabakiaren aurretik eta ondoren egin beharrekoei buruzko Dekretua» (azaroaren 26ko EHAA, 226. zk.).

Vitoria-Gasteizko Udalak bidezko desafektazio-espedientea hasteko jabeen eskaera bidali zuen Euskal Kultura Ondarearen Zentrora, lehen aipaturiko 306/1998 Dekretuan xedatutakoari jarraiki.

Higiezin hori oinarrizko babesa duen elementutzat jotzen du abenduaren 23ko 312/1997 Dekretuak, alegia, Vitoria-Gasteizko Hirigune Historikoa Kultura Ondasun gisa Monumentu Multzo izendapenaz kalifikatzeko denak (1998ko urtarrilaren 15eko EHAA, 9. zk.).

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuaren 2010eko uztailaren 16ko Ebazpenaren bidez (abuztuaren 18ko EHAA, 158. zk.), hasiera eman zitzaion Vitoria-Gasteizko Santa Maria kaleko 5ean dagoen higiezina desafektatzeko espedienteari, eta jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko izapideei.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

2776

DECRETO 99/2011, de 17 de mayo, por el que se acuerda la desafectación del inmueble n.º 5 de la calle Santa María de Vitoria-Gasteiz (Álava), bien cultural afectado por el Decreto 312/1997, de 23 de diciembre, por el que se califica como Bien Cultural con la categoría de Conjunto Monumental, el Casco Histórico de Vitoria-Gasteiz y se fija su régimen de protección.

El inmueble sito en el n.º 5 de la calle Santa María de Vitoria-Gasteiz (Álava) está incluido, con protección básica, en el Decreto 312/1997, de 23 de diciembre (BOPV n.º 9, de 15 de enero de 1998), por el que se declara Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental el Casco Histórico de Vitoria-Gasteiz.

La Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco (BOPV n.º 157, de 6 de agosto) establece en su artículo 36 la prohibición del derribo de los bienes culturales calificados y de los inventariados sin la previa declaración de ruina y autorización expresa de la Diputación Foral, siendo preciso asimismo la autorización previa del Gobierno Vasco sobre la desafectación.

En desarrollo de la citada normativa se dicta el Decreto 306/1998, de 10 de noviembre, sobre la declaración de estado ruinoso de los bienes culturales calificados y de los inventariados y actuaciones previas y posteriores a la resolución sobre el derribo de los mismos (BOPV n.º 226, de 26 de noviembre).

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz remitió al Centro de Patrimonio Cultural Vasco la solicitud de la propiedad para que se incoara el correspondiente expediente de desafectación, de conformidad con el Decreto 306/1998 citado.

Este inmueble es un elemento de protección básica en virtud del Decreto 312/1997, de 23 de diciembre, por el que se califica como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, el Casco Histórico de Vitoria-Gasteiz (Álava) y se fija su régimen de protección (BOPV n.º 9, de 15 de enero de 1998).

Mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, de 16 de julio de 2010, se incoa el expediente de desafectación del inmueble sito en el n.º 5 de la calle Santa María de Vitoria-Gasteiz (BOPV n.º 158, de 18 de agosto), en la que se sometía además el expediente a los trámites de información pública y audiencia a los interesados.

Horretarako legez ezarrita dauden izapideak bete ondoren, Luis Querejeta Altuna jaunak alegazio-idazki bat aurkeztu du «Proyecto 1983 SLU» sozietatearen izenean eta ordez.

Alegazio-egileak eskatzen du argitu dadila ezen «lehendik zeuden» eraikinen lursaila eta teilatu-hegalerainoko eta gailurrerainoko altuerak mantentzeak esan nahi duela geroko jarduketa guztietan nahitaez errespetatu beharko direla gaur egungo lursaila eta teilatu-hegalerainoko eta gailurrerainoko altuerak.

Alegazioak planteatzen duen auzia, azken batean, eraikinaren altueran eta beraren egokitasunean edo desegokitasunean datza.

Kultur ondarearen alorrean, altuera kalkulatzeko, benetan dagoen bolumetria zehatzaren erreferentzia erabiltzen da. Babesturiko bolumetria hori fatxada-planoek eta estalki-planoak definiturikoa da. Dagokigun kasuan, nola babestutako bolumena jada eraitsi den, ez dago zuzenean benetako erreferentzia zehatza neurtzeko aukerarik; hortaz, geratzen den bide bakarra da espedienteko planoak erabiltzea neurketak egiteko, zehazki 9. Dokumentuko 3 zenbakiko planoa –gaur egungo egoera– eta 13. Dokumentuko 5 zenbakiko planoa -berreraikitzea.

Bada, plano horien arabera neurturiko bolumenaren altuera 12,75 metrokoa da lehendikako bolumenari dagokionez, alegia, plano bietan behealdean grafiatutako eraikinaren abiapuntutik (543,01 metro) hasi eta fatxadak teilatuko isurkiarekin bat egiten duen punturaino neurtuta. Bestalde, berreraikitako bolumenari dagokionez, modu berean egindako neurketaren emaitza 13,50 metro da. Beraz, bi neurketaren arteko diferentzia 0,75 metro da.

Oinarrizko babesaren eremuan, kultura-ondarearen babesa ez dago hain lotuta lehendikako parametro kuantitatiboari, ezpada ere tipologia eta ingurumen aldeko balioei buruzko alderdi kualitatiboari.

Halaxe da. Honelako balioez ari garenean, bi alderdi balioesten dira nagusiki: batetik, bai arkitekturaren bai hiri-zati horren barne-egitura eratzaile komunari eustea, eta bestetik, hiri-egitura horrek toki jakin horretan sortu duen irudi zehatza.

Lehendikako bolumenaren irudi zehatza dela-eta, ingurumen-balioa sortzen duen irudia alegia, hainbat argazki jasotzen dira espedientean. Argazki horiek eraberritutakoaren aldean dauden diferentziak erakusten dituzte, eta salatzen dute, halaber, eraikitakoaren altuera-ezberdintasunak nola eragiten dion kualitatiboki ingurune horren irudiari.

Habiéndose dado correcto cumplimiento a los trámites legales establecidos al efecto, D. Luis Querejeta Altuna, en nombre y representación de Proyecto 1983, S.L.U. Ha presentado escrito de alegaciones.

El alegante solicita que se aclare que la obligación de respetar la parcela y las alturas a cubierta y a alero «de la preexistencia» se refiere a la obligación de respetar, en cualquier actuación futura, la parcela y alturas a cumbrera y alero de lo actualmente existente.

El debate de fondo que plantea la alegación se refiere a la altura de la edificación y a la adecuación o inadecuación de la misma.

En el ámbito del patrimonio cultural la altura se controla mediante la referencia directa a la real y concreta volumetría existente. Esa volumetría protegida es la definida por los planos de fachada y por el plano de cubierta. En el presente caso, habiéndose ya derribado el volumen protegido no hay posibilidad de referencia directa real y concreta, no queda sino realizar la medición sobre los planos que obran en el expediente, concretamente sobre el plano n.º 3 –estado actual– del Documento 9 del expediente y el plano n.º 5 –reedificación– del Documento 13 del expediente.

Pues bien, la medición directa de la altura del volumen sobre los mencionados planos es para el volumen preexistente de 12,75 metros, medida esa altura desde el nivel 543,01 metros de arranque de la edificación grafiado en la parte baja de ambos planos y hasta el punto de encuentro de la fachada con el faldón de la cubierta. Por su parte, para el volumen reedificado, la medición resultante realizada de igual manera, resulta ser de 13,50 metros. La diferencia medida sobre los mismos es de 0,75 metros de altura.

En el nivel de Protección Básica la protección del patrimonio cultural no se ciñe tanto al exacto parámetro cuantitativo en relación a la preexistencia como al cualitativo en relación a los valores tipológicos y ambientales.

En efecto, cuando se habla de ese tipo de valores lo que se valora es, por un lado, el mantenimiento de la estructura generadora común tanto de la estructura interna de la arquitectura como de la estructura interna de ese tramo de ciudad, y por otro, la imagen concreta que esa estructura urbana ha generado en el lugar.

Respecto a la imagen concreta del volumen preexistente, imagen que genera el valor ambiental, obran en el expediente fotografías del mismo. En ellas se puede percibir la diferencia con el estado reformado y cómo la diferencia de altura construida afecta cualitativamente la imagen de ese entorno.

Vitoria-Gasteizko hirigune historikoa babesteko araudiak ezartzen dituen betebeharren artean, lursaila babesteari dagokionez, honako obligazio hau dago: aurretiaz zeuden eraikinen teilatu-hegalen kotak diferenteak baldin baziren, diferentzia hori mantendu egingo da eraikin bateratutako jardun berrian; eta bolumena babesteari dagokionez, beste hau: mantendu egingo dira lehendik zeuden eraikinen teilatu-hegalerainoko eta gailurrerainoko altuerak.

Azken horixe da, hain zuzen ere, hasitako desafektazio partzialean exijitzen dena, eta zalantzarik ez dago Babes Araudiak aipatzen duen altuera eraitsitako bolumenaren altuera bera dela, eta ez gaur egungo bolumenarena, alegazioak dioen moduan.

Beraz, ezetsi egiten dugu aurkeztutako alegazioa, eta erreferentziako lehendikako altueratzat espedienteko 9. Dokumentuko 3 zenbakiko altuera jotzen dugu; gainera, kulturaren alorreko araudiarekin proportzionala dela deritzogu eta, horrenbestez, zuzentzat jotzen dugu berreraikitako bolumen berriak lehendikakoak zuen teilatu-hegalen arteko jarraitutasunik eza berreskuratzea eta hari eustea.

Ondorioz, uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, Kultura Ondarearen Zentroko zerbitzu teknikoek egindako aldeko txostena aztertu ondoren, eta Kulturako sailburuaren proposamenez eta Gobernu Kontseiluak 2011ko maiatzaren 17ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Vitoria-Gasteizko (Araba) Santa Maria kaleko 5eko higiezina partez desafektatzea, zeina abenduaren 23ko 312/1997 Dekretuan sartuta baitago (Vitoria-Gasteizko Hirigune Historikoa Kultura Ondasun gisa Monumentu Multzo izendapenaz kalifikatzeko eta hura zaintzeko babes arauak ezartzeko den Dekretua), eta lursailaren afektazioari eustea, alegia, eraikin berria altxatzeko 312/1997 Dekretuan aurreikusitako ordezte-arauak errespetatzeko betebeharra ezarriz, besteak beste lehendik zeuden teilatu-hegalerainoko eta gailurrerainoko altuerei eustea.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Kultura Sailak eskaera egingo dio Euskal Kultura Ondarearen Zentroari, Zentroari atxikitako Sailkatutako Ondasunen Erregistroan higiezinaren prebentzio-oharra baliogabetu dezan.

Bigarrena.– Dekretu honen berri ematea interesdunei, bai eta Vitoria-Gasteizko Udalari, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari eta Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailari

Entre las exigencias que el Régimen de Protección del Casco Histórico de Vitoria-Gasteiz establece están, para la protección de la parcela, la obligación de que cuando los inmuebles preexistentes reflejen una diferencia de cota en el alero, dicha diferencia habrá de ser mantenida en la actuación conjunta, y para la protección del volumen, que se mantendrán las alturas a alero y cumbrera de la preexistencia.

Es precisamente esta última la que se exige en la desafectación parcial incoada, y no existe ninguna duda al respecto de que la altura a la que se refiere el Régimen de Protección es la altura que fue del volumen derribado y no la del volumen actual como la alegación pretende.

En consecuencia se procede a desestimar la alegación presentada, a considerar como altura de referencia para la altura de la preexistencia la que figura en el plano n.º 3 del Documento 9 del expediente, y a considerar proporcional respecto a la normativa sectorial cultural, y por tanto exigible, la exigencia cualitativa de que el nuevo volumen reedificado recupere y mantenga con relación a los edificios colindantes la discontinuidad de aleros del volumen preexistente.

En su virtud, de conformidad con lo dispuesto al efecto en la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, visto el informe favorable de los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural, a propuesta de la Consejera de Cultura y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 17 de mayo de 2011,

DISPONGO:

Artículo único.– Desafectar parcialmente el inmueble sito en el número 5 de la calle Santa María de Vitoria-Gasteiz (Álava), incluido en el Decreto 312/1997, de 23 de diciembre, por el que se califica como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, el Casco Histórico de Vitoria-Gasteiz y se fija su régimen de protección, y mantener la afectación de la parcela, obligando a respetar, para la nueva edificación, las normas de sustitución previstas en dicho Decreto 312/1997, entre las que se establece la necesidad de mantener las alturas a alero y a cumbrera de la preexistencia.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.– El Departamento de Cultura instará al Centro de Patrimonio Cultural Vasco, a fin de que se proceda a cancelar la anotación preventiva del inmueble en el Registro de Bienes Culturales Calificados, adscrito al citado Centro.

Segunda.– El Departamento de Cultura notificará el presente Decreto a los interesados, al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y a los Departamentos de Euskera, Cultura y Deportes y de Administración

eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari ere.

Hirugarrena.– Argitara dadila dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta ALHAOn, jende guztiak horren berri izan dezan.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Dekretu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, aurretik bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Gobernu Kontseiluari hilabeteko epean, edo bestela zuzenean administrazioarekiko auzierrekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan bi hilabeteko epean, azkenekoz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko maiatzaren 17an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

Local y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Álava, así como al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

Tercera.– Publíquese el presente Decreto en el Boletín Oficial del País Vasco y en el BOTHA para su general conocimiento.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra el presente Decreto, que agota la vía administrativa, podrá interponerse, previamente, en su caso, recurso de reposición ante el Consejo de Gobierno en el plazo de un mes, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

Segunda.– El presente Decreto surtirá efectos a partir del mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 17 de mayo de 2011.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

La Consejera de Cultura,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.